



ONDARROAKO UDALA

Garraio txartel bakarra ezartzearen alde

Ondarroako Udaleko Bildu Udal Taldeak, gure herrialdian garraio txartel bakarra ezartzearen inguruan honako MOZIOA aurkezten du.

Azken urte hauetan asko hitz egin da garraiorako txartel bakarraz. Herrialde bakoitzak bere pausoak eman ditu honen inguruan, eta honela egun Barik (Bizkaia), Bat (Araba) eta Mugi (Gipuzkoa) txartelak ditugu, herrialdearen arabera.

Gure ustetan, ordea, txartel bakarrera jo beharko genuke Euskal Herrian, edozein herritarrek jaso beharreko zerbitzua osatuagoa izan dadin, eta Euskal Herrian egingo dituen mugimenduetarako tresna bakarra eskura izateko.

Eusko Jaurlaritzak ere esana du bere helburua txartel bakarra dela, baino askoz gehiago zehaztu gabe. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du zehaztu zein diren garraio txartel bakarra ezartzeko irizpideak ezta epeak ere. Barik bezalako ordainketa txartel sistema baino harago, ezarri beharreko deskontu politika edo zein irizpideen arabera bultzatuko den zehaztu behar da.

Txartel bakarraz hitz egiten dugunean, eta hemen dago gakoa, ez gara soilik izen bera, teknologia bera eta garraio guztietan erabilgarria den txartel batez ari. Noski hori helburuetako bat dela, edozein herrialdetakoak garena ere, gure mugimenduak herrialde barruan egin edo herrialde artean, kasu guztietan erabiltzeko moduko txartel bat izatea.

Hori horrela izanda ere, txartel bakarra hori baino gehiago dela ulertzen dugu, eta beharrezkoa dela honen definizioa, eman beharreko urratsak zein helbururen bila eman behar diren argi izateko. Izan ere, Barik txartela baino harago, bizkaitarrok Bizkaian edozein garraio publiko erabiltzeko aukerak emango dituen txartela beharrezkoa dugu joan-etorriko abiapuntuagatiko inolako bereizkeriarik gabe, eta noski, gainontzeko herrialdetan erabilgarria izateko zein aplikatu beharreko deskontuen politika, erabiltzaileen errentan zein maiztasunean oinarrituta.

Horregatik guztiarengatik, Ondarroako Udalbatzak zera eskatzen du:

1. Bizkaiko Garraio Agintaritzak Bizkaian eta gainontzeko lurraldeetan txartel bakarra izateko urratsak emateko ardura bere gain har dezala eta bide horretan Bizkaiko Foru Aldundiak eskuduntza duen erakundeekin elkarlanean urratsak eman ditzala hau lortzeko.
2. Bizkaian ezarriko beharreko txartel bakarrak hiru helburu asetzea bila dezala, eta beraz, hauetan ezaugarritu dadila:



ONDARROAKO UDALA

1. Edozein herrialde, herri, garraibide edo operadoreekin egin beharreko bidaiari ordainketarako erabilgarri izango den txartela izatea, eskuratzeko erraza eta bakarra denentzat.
2. Edozein delarik ere erabiltzen den garraio bidea, edozein delarik ere zerbitzua ematen duen operadorea, ibilbide berak kostu bera izan dezala.
3. Tarifa bateratua ekar dezala, alegia, garraio bide ezberdinetan tarifa bera izan dadila, eta horiek oinarri hartuta erabiltzaileei deskontu politika zehatza aplikatzea, bi ardatzetan oinarrituz: erabiltzailearen errenta eta erabilpen maiztasuna: gutxien dutekak eskuragarri izan dezaten garraioa eta garraioa publiko asko erabiltzen dutenak sarituz.